

Luis Liz Marzán National Academy of Engineering-eko akademiko berria

AEBko National Academy of Engineering-ek (NAE) International Member izendapena eman dio Luis Liz Marzáni, ingeniartzan eta teknologian egindako ekarpenengatik

Aintzatespen horrek arlo teknologiko berrien garapena eta ingeniartzan ikuspegi berritzaileen aplikazioa aitortzen ditu

Donostian, 2023ko otsailaren 9an. AEBko National Academy of Engineering-ek (NAE) 2023an International Members gisa aintzatetsiko dituen 18 akademikoen zerrenda argitaratu berri du. Horien artean dago Luis Liz Marzán, CIC biomaGUNEko Ikerbasque ikertzailea eta Vigoko Unibertsitateko katedraduna, nanoplasmonikaren, nanopartikulen eta nanosentsoreen arloetan Koloideen Kimikaren aplikazioa eta egindako ekarpenak aintzat hartuta. Liz Marzán CIC biomaGUNEko [Bionanoplasmonika](#) taldeko ikertzaile nagusia da, eta Bioingeniartzako, Biomaterialetako eta Nanomedikuntzako Sareko Ikerketa Biomedikoaren Zentroko ([CIBER-BBN](#)) ikertzaile nagusia ere bada.

NAEn sartzearekin aintzatetsi egiten dira "ingeniartzaren ikerketan, praktikan edo irakaskuntzan" bikaintasunezko ekarpenak egin dituztenak, eta baita "arloteknologiko berrietan aitzindari izaten, ingeniartzaren arlo tradizionalan aurrerapen garrantzitsuak garatzen eta ingeniartzako ikuspegi berritzaileak aplikatzen" lagundu dutenak.

Akademiko berriak NAEk 2023ko urriaren 1ean egingo duen urteroko bileran onartuko dira formalki. 2023ko NAE Member guztien zerrenda hemen dago [eskuragarri](#).

Luis Liz Marzáni buruz

Luis Liz Marzán, kimikan doktore, Koloideen Zientzian espezializatu zen. Nanozientzia eta nanomedikuntza izan ditu ardatz haren ikerketak, eta, zehazki, propietate plasmonikoak dituzten nanopartikula metalikoetan eta eremu biomedikoan dituzten aplikazioetan jarri du arreta. Gaur egun, bere belaunaldiko zientzialari entzutetsuenetako bat da, bere alorrean ekarpen garrantzitsu asko egin baititu. Nazioartean eragina duten aldizkarietan 500 lan baino gehiago argitaratu ditu, bederatzirentzen asmatzaileetako bat da, eta lau libururen editore. Bere argitalpenek eragin handia izan dutenez, *ISI Highly Cited Researcher* izendatu dute zazpi urtez jarraian (2014-2020). Liz Marzánen lanek 50.000 aipamen baino gehiago izan dituzte; 120 inguruko H indizea lortu du (WOS datuak), eta 90 argitalpen baino gehiago sailkatu ditu *Essential Science Indicators*-ek *highly cited papers* gisa (alegia, asko aipatzen diren artikuluko zientifiko gisa).

Liz Marzánek Santiagoko Unibertsitatean abiarazi zuen bere ibilbidea, eta, doktoratu ostean Utrecheko Unibertsitatean bi urte ikertzen eman ondoren, Vigoko Unibertsitatean hasi zen lanean, 1995ean. 2012tik, CIC biomaGUNEko zientzia-zuzendaria da, eta Bionanoplasmonikako

Laborategia zuzentzen du. Ikerbasque irakaslea da. Halaber, Bioingeniaritzako, Biomaterialetako eta Nanomedikuntzako Sareko Ikerketa Biomedikoaren Zentroko (CIBER-BBN) nodo bat zuzentzen du.

ERC Advanced Grants entzutetsuak bi aldiz segidan eskuratu dituen Europako ikertzaile gutxietako bat da (2012-2017; 2018-2023). Biak nanomaterialen aplikazio biomedikoekin lotuta daude. Gainera, hainbat argitalpen-batzordetako kide da (*Scienceko Board of Reviewing Editors* gisa aritzen den espainiar bakarra da) eta *American Chemical Society*-ren zenbait aldizkariren editore izan da. Liz Marzán irakaslea *Royal Society of Chemistry*ko (Erresuma Batua) eta *Optical Society of America*ko (AEB) kide da (*Fellow*). Espainiako Zientzien Errege Akademiako akademikoa da, eta Galiziako eta Granadako zientzia-akademietako eta *European Academy of Sciences*eko urgazle. Hainbat sari jaso ditu, besteak beste, *Humboldt Research Award*, Espainiako Kimikako Errege Akademiaren domina, *Blaise Pascal Medal in Materials Science*, Jaime I Erregearen Saria, *European Colloid and Interface Society*ko *Rhodia Prize* eta Kimika Zientzia eta Teknologiako Enrique Moles Sari Nazionala, Ikerketa Biomedikoko Lilly Fundazioaren Saria eta Frantziako Kimika Elkartearen (SCF) "Miguel Catalán-Paul Sabatier" sari frantziar-espainiarra. Duela gutxi, *Honoris Causa* doktoregoa ere eman dio Anberesko Unibertsitateak.

National Academy of Engineering-i buruz

[National Academy of Engineering](#) erakunde pribatua, independentea eta irabazi asmorik gabekoa da, eta lidergoa eskaintzen du gizartearen zerbitzura dagoen ingeniartzan. Ongizatea eta oparotasuna sustatzea du helburu, aholkularitza independentea emanez ingeniartzarekin eta teknologiarekin zerikusia duten gaitetan, eta lanbide dinamikoa eta estimazio publikokoa sustatuz. NAEk 2.000 kide baino gehiago ditu, enpresa-, hezkuntza- eta gobernu-arloetako goi-mailako profesionalak, munduko ingeniari garrantzitsuenen artean daudenak, eta ingeniartza, teknologia eta bizi-kalitatearen arteko harremani buruzko proiektu ugariaren lidergoa eta esperientzia eskaintzen dutenak.

CIC biomaGUNEri buruz

CIC biomaGUNE biomaterialen alorreko ikerketa kooperatiboko zentroak, zeina Basque Research and Technology Allianceko ([BRTA](#)) kide baita, punta-puntako ikerkuntza egiten du kimikaren, biologiaren eta fisikaren arteko eremuan, eta arreta berezia jartzen du nanoegitura biologikoen eskala molekularreko propietateetan, bai eta haien aplikazio biomedikoetan ere. 2018an, "María de Maeztu" Bikaintasun Unitate izaera aitortu zioten bikaintasun-baldintzak betetzeagatik, zeinen bereizgarria baita dagokion jarduera-esparruan inpaktu handia eragitea eta lehiakortasun-maila handia izatea mundu mailako zientzian.